



Eibarko Udala

GIZARTE LANGILEA

Lehenengo ariketa

2015-02-26

1 GIZARTE ZERBITZUEI BURUZKO ABENDUAREN 5EKO 12/2008 LEGEAREN ARABERA, GIZARTE-ZERBITZUETARAKO ESKUBIDEAREN TITULARRAK DIRA

- 1a) Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrietako edozeinetan erroldatuta dauden pertsonak, baldin eta legezko eta benetako bizilekua bertan badute; eta EAEn dauden pertsonak ere gizarte-larrialdietako zerbitzuez baliatu ahal izango dira baina ez baina ez informazio-, balorazio-, diagnostiko- eta orientazio-zerbitzuez.
- 1b) Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrietako edozeinetan erroldatuta dauden pertsonak, baldin eta legezko bizilekua bertan badute, eta EAEn dauden pertsonak informazio-, balorazio-, diagnostiko- eta orientazio-zerbitzuez baliatu ahal izango dira.
- 1c) Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrietako edozeinetan erroldatuta dauden pertsonak, baldin eta legezko eta benetako bizilekua bertan badute.
- 1d) Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrietako edozeinetan erroldatuta dauden pertsonak, baldin eta legezko eta benetako bizilekua bertan badute. Era berean, titularrak izan daitezke baita sistemaz baliatu ahal izateko eskabidea egin aurre-aurreko 6 hilabete jarraituetan Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan erroldatuta egon direla eta benetako bizilekua bertan izan dutela egiaztatzen dutenak.

2 GIZARTE ZERBITZUEN EUSKAL SISTEMAREN LAGUNTZA TEKNIKOAK DIRA

- 2a) Informazioa, balorazioa, diagnostikoa, orientazioa, bitartekaritza, etxeko arreta, arreta pertsona, gizarte- eta hezkuntza-arloko esku hartzea, lagun egitea eta laguntza sozio-juridikoa.
- 2b) Gizarteratzea eta/edo autonomia errazteko eta menpekotasunaren ondorio ekonomikoetan erantzuna emateko edo ondoriook neurri batean arintzeko prestazioak.
- 2c) Berreskugarriak.
- 2d) Autonomiarako mugak prebenitu, konpentsatu, arindu edo ezabatzeko produktu, tresna, ekipamendu edo sistema tekniko oro, merkatuan lehendik dagoena edo berariaz fabrikatua.

3 MARKATU ERANTZUN ZUZENA. OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUAK, ZER DIRA?

- 3a) Arreta-unitate bat da, polibalentea eta diziplina askotarikoa, udalen gizarte-zerbitzuen barruan dagoena.
- 3b) 20.000 biztanletik beherako EAeko udalek ez dute zergatik eduki behar lehen mailako arretako gizarte-zerbitzu bat.
- 3c) Oinarrizko gizarte-zerbitzuaren zeregin nagusia gizarte-zerbitzuak betetzean sortzen diren disfuntzioen edo defizita detektatzea izango da.
- 3d) Oinarrizko gizarte-zerbitzuak, ezarpen geografikoan, Foru Aldundien Gizarte Zerbitzuetako Mapan ezarritako irizpideei jarraituko die.

4 GIZARTE ZERBITZUEN ALORREAN, EZ DA UDALEN ESKUMENEKOA

- 4a) Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 29. artikulua aurreikusitako oinarrizko gizarte-zerbitzuak sortzea, antolatzea eta kudeatzea.

- 4b) Erabiltzaileek doakoak ez diren zerbitzuen finantzaketan izan beharko duten parte-hartze ekonomikoa zehazteko irizpide orokorrak arautzea.
- 4c) Gizarte-ekintzaren hirugarren sektorea sustatzea eta bultzatzea.
- 4d) Udalak beren zerbitzuak antolatzeko erregelamenduak egiteko ahala.

5 **EZ DA GIZARTE ZERBITZUEN ERABILTZAILEEN ESKUBIDEA**

- 5a) Arreta pertsonalizatua eta banakatua jasotzea.
- 5b) Detektatutako beharri zehatzari egokituak banakako plan bat izatea.
- 5c) Dagozkien erabaki guztietan parte hartzea.
- 5d) Bere egoerari buruzko azalpenak neurri batean baino ez ematea.

6 **ERABILTZAILE BATEK GURE ZERBITZUAREN INGURUKO KEXA BAT SARTUKO BALU, ZEIN IZANGO LITZATEKE KEXA SARTU ZUENETIK KOMUNIKAZIOA BIDALTZEKO EPEA?**

- 6a) 30 egun.
- 6b) 30 lanegun.
- 6c) 40 lanegun.
- 6d) 40 egun.

7 **PERTSONA BATEK GIZARTE LARRIALDIETARAKO LAGUNTZAK ESKATU AHAL IZATEKO BETE BEHAR DUEN BALDINTZA DA**

- 7a) Euskadiko Autonomia Erkidegoko udalerritako edozeinetan erroldatuta egotea eskabidea aurkeztu baino sei hilabete lehenago gutxienez.
- 7b) Eskabidea aurkeztu baino urtebete lehenago sortutako bizikidetza-unitaterik ez izatea, baina adingabeak ekonomikoki beren kargura edukitzea.
- 7c) Eskabidea aurkeztu baino sei hilabete lehenago sortutako bizikidetza-unitatea izatea.
- 7d) Etxebide zerbitzuan inskribatutakoak izatea edozein laguntza mota eskatzeko.

8 **GIZARTE LARRIALDIETARAKO LAGUNTZAK EZARTZEN DITUEN LEGEA ZEIN DA?**

- 8a) 12/2008 Legea, abenduaren 5koa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa.
- 8b) 2014ko apirilaren 9ko Agindua, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuarena; horren bidez, gizarte larrialdietarako laguntzeko gastu espezifiko bakoitzeko 2014. urtean gehienez eman daitezkeen diru-kopuruak finkatzen dira.
- 8c) Maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretua, diru-sarrerak bermatzeko errenta arautzen duena.
- 8d) Abenduaren 23ko 18/2008 Legea, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak bermatzeko.

9 **GIZARTE LARRIALDIETARAKO LAGUNTZAK JASOTZEN DITUEN PERTSONA BATEK BETE BEHAR DITUEN OBLIGAZIO HAUETATIK MARKATU ZUZENA EZ DENA:**

- 9a) Bidegabe jasotako prestazioen zenbatekoa itzultzea.

- 9b) Ohiko bizileku aldaketaren berri ematea.
- 9c) Beharrezana edukiz gero, gizarte larrialdietako laguntza beste helburu baterako erabiltzea, ez eman zen helburu hartarako.
- 9d) Jakinaraztea, egutegiko 15 eguneko epean, GLko laguntzak baliatzeko aukera eman lezaketan baldintzak betetzeari buruz gerora jazotako gertaerak.

10 DIRU SARRERAK BERMATZEKO LAGUNTZA ESKATZEKO LEKUA:

- 10a) Araba/Álava
- 10b) Gipuzkoa eta Bizkaia.
- 10c) Gipuzkoa
- 10d) Euskal Autonomia Erkidegoa

11 DIRU SARRERAK BERMATZEKO LAGUNTZA KASU HONETAN AZKENDUKO DA:

- 11a) Errefusatzea, udal gizarte zerbitzuen iritziz arrazoi justifikaturik gabe, bere familia-eta gizarte-egoerari egokitzen zaion enplegu edo lan bat.
- 11b) 4 hile igarotzea etenaldi egoeran.
- 11c) Gizarte larrialdietarako laguntzak jasotzen hastea.
- 11d) Gipuzkoan kokatutako beste udalerrri batera joatea bizitzera.

12 GIZARTE BERMERAKO ERRENTAREN TITULARRAK ETA LANERAKO ADINEAN DAUDEN BIZIKIDETZA-UNITATEKO KIDEAK PREST EGON BEHAR DIRA GIZARTEARENTZAT LAN EGITEKO

- 12a) Administrazioak horrela egin nahi duenean.
- 12b) Titular guztiak, salbuespenik gabe, Administrazioak boluntarioritza-erakundeen bitartez modu ezohikoan eskatzen dietenean.
- 12c) Ez dute gizartearentzako lanik egingo erabateko balioezintasuneko pentsioen titular direnak.
- 12d) Ikasketa arautuak egiten ari diren 23 urtez beherakoak.

13 MARKATU ZUZENA EZ DEN ERANTZUNA. DIRU SARRERAK BERMATZEKO ERRENTA ESKURATZEKO ESKUBIDEA IZATEKO, ERROLDATUTA EGOTEA ETA BENETAN BERTAN BIZI IZATEA ESKATZEN DA ALDI HONETAN,

- 13a) 2 urte.
- 13b) 3 urte.
- 13c) 5 urte.
- 13d) urte 1 eta etxean tratu txarrak jasandako biktimak izatea.

14 INTERKULTURALITATEAK ESAN NAHI DU

- 14a) Immigranteak egokitu daitezela gizarte hartzaileera.
- 14b) Gizarte hartzaileak mekanismoak ezar ditzala immigranteak gizartera daitezen.

- 14c) Gizarteko identitate ezberdinek izan dezatela baldintza berdinetan garatzako aukera.
- 14d) Legeek eskubide guztiak berdintzat aitortzea eta beste kultura batzuen existentzia bereganatzea

15 EIBARKO IMMIGRAZIOA ETA ANIZTASUNA KUDEATZEKO II. PLANA 2012-2016 DOKUMENTUAREN ARABERA, GIZARTE ZERBITZUEK ONDOKO EKINTZA HAUEK GARATUKO DITUZTE:

- 15a) Etorri berriei dauden baliabideak aurkeztea, banaka zein taldeka.
- 15b) Udal sailen aldetik bidezkoa den aurrekontu-zatia zuzentzea beren ekintzak garatzeko.
- 15c) Informazioa argitzea, ostatu hartzeko eta erroldatzeko moduen inguruan eta prestazioak eta zerbitzuak eskuratzearen inguruan.
- 15d) Aurreko erantzun guzti horiek zuzenak dira.

16 ATZERRIKO HIRITAR BATEK, GIZARTE-ERROTZE ARRAZOIENGATIK, ALDI BATERAKO BIZILEKU-BAIMENA ESKURATU AHAL IZAN DEZAN, ZEIN DA ONDOKO BETEKIZUN HAUETATIK ZUZENA EZ DENA:

- 16a) Beste egoiliar batzuekin edo espainiarrekin familiarik kanpoko loturak izatea edo gizarteratu dela egiaztatuko lukeen txosten bat aurkeztea.
- 16b) Espainian gutxienez hiru urtez jarraian egon izandakoa izatea.
- 16c) Langileak eta enplegatazaileak izenpetutako lan-kontratu bat izatea, urte batekoa edo hortik gorakoa.
- 16d) Europako Batasuneko kide den Estatu bateko hiritarra ez izatea.

17 GIZARTE-ERROTZE ARRAZOIENGATIK, ALDI BATERAKO BIZITOKIRAKO BAIMENA EMATEKO EPEA ZEIN DA, ?

- 17a) 3 hilekoa, baimena tramitatzeko eskumena duen organoaren erregistroan sartu eta biharamunetik aurrera zenbatuta.
- 17b) 6 hilekoa, baimena tramitatzeko eskumena duen organoaren erregistroan sartu eta biharamunetik aurrera zenbatuta.
- 17c) 2 hilekoa, baimena tramitatzeko eskumena duen organoaren erregistroan sartu eta biharamunetik aurrera zenbatuta.
- 17d) Aurreko hiru erantzun horietatik bat bera ere ez da zuzena.

18 DROGAMENPEKOTASUNEI AURRE EGITEKO IV. PLANA 2011-2015 DOKUMENTUAREN ARABERA, HAUEK DIRA DROGAMENPEKOTASUNAK PREBENITZEKO EDO AURREZAINTEZKO ESKU-HARTZE ARLOAK:

- 18a) Prebentzioa, laguntza, gizarteratzea eta eskaintzaren kontrola.
- 18b) Prebentzio unibertsala, selektiboa eta egokitua.
- 18c) Prebentzioa eta gizarteratzea.
- 18d) Prebentzioa, laguntza eta gizarteratzea.

19 OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUEN ETA ESPEZIALIZATUEN ARTEKO EGITURAKETAN DAGOEN DIFERENTZIA,

- 19a) Zerbitzu espezializatuak, zerbitzuok erabiltzen dituztenen pertsonak adin, sexu eta beste ezaugarri pertsonal batzuen arabera ezberdintzean funtsatzen dira.
- 19b) Espezializatueta bezala, kolektibo espezifikokoendako prestazio ekonomikoak daude sartuta oinarrizko gizarte zerbitzuetan.
- 19c) Maila bi horien helburu nagusia da eskubideei eta baliabideei buruzko orientazioa ematea.
- 19d) Aurreko hiru erantzun horietatik bat bera ere ez da zuzena.

20 MARKATU ZUZENA EZ DENA. GIZARTE ZERBITZUEK ONDOKO BETEKIZUN HAUEK DAUZKATE BEREN JARDUERAREN HELBURUTZAT:

- 20a) Delinkuentzia eta horrekin lotutako arazoak.
- 20b) Etxebizitzaren gizarte-babesa.
- 20c) Arrisku pertsonaleko egoerak eta larrialdiak.
- 20d) Ezintasuna eta mendetasuna.

21 OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZU BATEKO GIZARTE LANGILE BATEN EGITEKOAK, ZEINTZUK DIRA?

- 21a) Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen prestazio ekonomikoak kudeatzea.
- 21b) Ezintasun- eta ezgaitasun-maila baloratzea.
- 21c) Umeen babesgabetasun larriko kasuetan baliabideak zehaztea eta esleitzea.
- 21d) Aurreko hiru erantzun horietatik bat bera ere ez da zuzena.

22 GIZARTE ZERBITZU ESPEZIALIZATUEN BALIABIDEAK.

- 22a) Egoitza.
- 22b) Bazterkeria egoeran dauden pertsonendako egonaldi ertaineko ostatuak.
- 22c) Eguneko zentroa.
- 22d) Aurreko erantzun guzti horiek zuzenak dira.

23 'GIZARTE BAZTERKETA' KONTZEPTUARI BAGAGOZKIO, ZEIN DA ZUZENA EZ DEN ELEMENTUA.?

- 23a) Egiturazkoa izatea.
- 23b) Multidimentsionala izatea.
- 23c) Arazo soziala izatea.
- 23d) Estatikoa izatea.

24 AZAROAREN 5EKO 58/2002 FORU DEKRETUAK GIZARTERATZE BALIABIDEEN SAILKAPENA DAKAR. HONELA SAILKATZEN DITU:

- 24a) Egonaldi luzeko, ertaineko eta motzeko ostatatzea.
- 24b) Birgizarteratzeko zentro intentsiboak eta gizarteratze ez intentsiborako zentroak.
- 24c) Egonaldi luzeko, ertaineko eta motzeko ostatatzea; gizarte ikaskuntzako tailerrak eta toxikomaniak jasaten dituzten pertsonendako baliabideak.
- 24d) Etxebizitza babestuak eta egonaldi motzeko ostatatzeak.

25 'GIZARTE KONTUETAN LAGUNTZEA'. ZEIN DA DEFINIZIO HORREKIN BAT EZ DATORRENA?

- 25a) Gizarte esku-hartzerako metodo profesionala.
- 25b) Hiritarrak laguntza izateko duen eskubidea.
- 25c) Kalteak murriztea eta hobetzeko aukera ahalbideratzea helburu izatea.
- 25d) Gizarte langilea da gizarteratzeko ibilbide banakatua diseinatzen duena.

26 GIZARTERATZEKO POLITIKEN GARAPENEK, ZER ESKATZEN DUTE? GIZARTERATZE PROZESUEK, ZER ESKATZEN DUTE?

- 26a) Aurrenik eta behin, gutxieneko diru-sarreraren politikak garatzea.
- 26b) Gizarteratze-prozesuen oinarri, gizarte kontuetan laguntzeko programak izatea.
- 26c) Memento pertsonala eta bazterkeria-maila nolakoa den ikustea.
- 26d) Aurreko horietatik, bat bera ere ez.

27 1978KO KONSTITUZIOAN, GIZONEN ETA EMAKUMEEN ARTEKO BERDINTASUN FORMALA JASOTZEN DUEN ARTIKULUA.

- 27a) 14
- 27b) 15
- 27c) 9
- 27d) 18

28 ERAKUNDEEN ARTEKO II. HITZARMENAK, ETXEAN TRATU TXARRAK ETA SEXU-ERASOAK JASATEN DITUZTEN EMAKUMEEI LAGUNTZA HOBEA EMATEKOAK, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN, ETXEAN TRATU TXARRAK ETA SEXU-ERASOAK JASATEN DITUZTEN EMAKUMEEI LAGUNTZEKO ARDURA DUTEN ERAKUNDEEN ARTEKO KOORDINAZIOA HOBETZEA DU HELBURU, ETA HAUXE DA EMAKUMEEI BERMATU NAHI DIENA:

- 28a) Babes poliziala eta osasun arreta izatea.
- 28b) Babes poliziala eta gizarte zerbitzuen arreta izatea.
- 28c) Babes eta arreta osoa izatea osasun arloan, arlo polizialean, judizialean eta sozialean.
- 28d) Babes eta arreta osoa izatea lege arloan, lan arloan eta etxebizitzarenean.

29 ONDOREN ENTITATE BATZUK AIPATUKO DITUGU. HAUETAKO BAT DA TOKIKO JARDUERA PROTOKOLOAN PARTE HARTZEN EZ DUENA ETA IZENPETU EZ DUENA, ZEIN DA?

- 29a) Epaitegia.
- 29b) Emakume elkarteak.
- 29c) Ikastetxeetako ordezkariak.
- 29d) Polizia.

30 ETXeko TRATU TXAR ETA SEXU ERASOEN BIKTIMA DIREN EMAKUMEEI LAGUNTZA JURIDIKOA ESKAINTZEN DIEN ZERBITZUA DAGO, EUSKO JAURLARITZAREN MENPEKOA ETA ABOKATU ELKARTEEK ESKAINTZEN DUTENA. HORRELA, BIKTIMARI, SALAKETA AURKEZTU BAINO LEHEN EDO BABESA IZATEKO ESKAERA EGIN AURRETIK, ABOKATUEN LAGUNTZA ESPEZIALIZATUA ESKAINTZEN ZAIO. LAGUNTZA HORI POLIZIAREN BULEGOAN ESKATU BEHAR DA, BAINA BALITEKE BESTE NONBAITEN ESKATU AHAL IZATEA ERE. ESAN ZEIN IZAN DAITEKEEN LAGUNTZA ESKATZEKO BESTE LEKU EDO ZERBITZU HORI.

- 30a) Epaitegia
- 30b) Gizarte Zerbitzuak
- 30c) Epaitegia eta Gizarte Zerbitzuak
- 30d) Aurreko leku horietatik, batean ere ez. Laguntza hori Poliziaren bulegoetan bakarrik eska daiteke.

31 PERTSONA NAGUSIENAKO EGUNEKO ARRETA ZENTRO BAT ESKATUZ GERO, ESKAERA EGITEN DUENAK BALORAZIO HAU/HAUEK EGINDA EDUKI BEHAR DU/DITU:

- 31a) BVD
RAI
- 31c) EZINTASUNA.
- 31d) BVD eta RAI.

32 MENPEKOTASUN EGOERAN DAUDEN PERTSONEI ARRETA ESKAINTZEKO ETA EUREN AUTONOMIA PERTSONALA SUSTATZEKO LEGEAK ESKUBIDEEN TITULARRAK IZATEKO BALDINTZAK EZARTZEN DITU. ZEIN DA BETE BEHAR DEN BALDINTZA?

- 32a) Espainiako lurraldean bost (5) urtez bizi izatea, horietako hiru (3) eskaria aurkeztu den unearen aurreko hirurak.
- 32b) Espainiako lurraldean hamar (10) urtez bizi izatea, horietako bost (5) eskaria aurkeztu den unearen aurreko bostak.
- 32c) Espainiako lurraldean bost (5) urtez bizi izatea, horietako bi (2) eskaria aurkeztu den unearen aurreko biak.
- 32d) Menpekotasun-egoeran legeak zehaztutako maila horietakoren batean egotea. Menpekotasun-egoeran dauden pertsonen arreta eskaintzeko eta euren autonomia pertsonala sustatzeko abenduaren 39/2006 Legeak zehazten dituen maila horietako baten balorazioa edukitzea Espainiako lurraldean bizi izateke.

33 URTARRILAREN 22KO 2/2013 DEKRETUAREN ARABERA, ONDOKO

BALDINTZA HAUEK BETE BEHAR DITU PROFESIONALA EZ DEN ZAINZAILAK:

- 33a) Mendeko pertsonaren ezkontidea edo izatezko bikotekidea izatea, edo odol, ezkontza edo adopzio bidezko senidea hirugarren ahaidetasun graduraino, eta mendeko pertsonarekin etxe berean erroldatuta egotea.
- 33b) Mendeko pertsonaren ezkontidea edo odol bidezko senidea bigarren ahaidetasun graduraino bakarrik eta mendeko pertsonarekin etxe berean erroldatuta egotea.
- 33c) Besteak beste, zaintza erlijiosoa izatea eta zaintzen duen pertsona komunitate bereko kidea izatea, mendeko pertsonarekin etxe berean erroldatuta egotea.
- 33d) Mendeko pertsonaren ezkontidea edo izatezko bikotekidea izatea, edo odol bidezko senidea laugarren graduraino eta mendeko pertsonarekin etxe berean erroldatuta egotea.

34 AUTONOMIA PERTSONALA SUSTATZEKO LEGEAK ZENBAT PRESTAZIO EKONOMIKO MOTA EMATEN DITU? NOLAKOAK?

- 34a) Mota bi: Zerbitzuari lotutakoa – Laguntza pertsonalekoa.
- 34b) Hiru mota: Zerbitzuari lotutakoa. - Laguntza pertsonalekoa. Hirugarren pertsona bati laguntzeko premia.
- 34c) Hiru mota: - Zerbitzuari lotutakoa. - Laguntza pertsonalekoa. - Familia inguruan zaintze-lanak egiteko eta profesionalak ez diren zaindariei laguntzeko.
- 34d) Bat: - Familia inguruan zaintze-lanak egiteko eta profesionalak ez diren zaindariei laguntzeko.

35 MENDEKOTASUN EGOERA HONELA SAILKATUKO DA:

- 35a) I. gradua: Mendekotasun larria.
II. gradua: Mendekotasun handia
- 35b) I. gradua: Autonomia.
II. gradua: Mendekotasun larria.
III. gradua: Mendekotasun handia
- 35c) I. gradua: Mendekotasun moderatua.
II. gradua: Mendekotasun larria.
III. gradua: Mendekotasun handia
- 35d) I. gradua: Mendekotasun moderatu arina.
II. gradua: Mendekotasun grabea.
III. gradua: Mendekotasun handia.

36 EMAN MENDEKOTASUN BALORAZIOA ALDATZEKO ARRAZOTIAK (INTERESATUAK HALA ESKATUTA, HAREN ORDEZKARIEK ESKATUTA EDO HORRETAN ESKUMENA DUEN ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK, OFIZIOZ).

- 36a) Mendekotasun egoerak onera egitea.
- 36b) Diagnostikoan akats bat egitea eta mendekotasun egoerak onera egitea.
- 36c) Mendekotasun egoerak onera egitea edo txarrera egitea.
Diagnostikoan akats bat egin izatea.

- 36d) Mendekotasun egoerak onera edo txarrera egitea.
Diagnostikoan akats bat egitea edo dagokion baremoaren aplikazioan akats bat egitea.
- 37 PRESTAZIO HAUETAKO BATEK EZ DU KENTZEN 39/2006 LEGEAREN PRESTAZIO EKONOMIKO HORIETAKO BAT JASOTZEKO ESKUBIDEA. ZEIN DA?.**
- 37a) Baliaezintasun Handiko osagarria.
37b) Esleipen ekonomikoa 18 urtetik gorako seme-alaba bere kargu edukitzeagatik eta % 75ekoa edo hortik gorako mendekotasun gradua izateagatik.
37c) Beste pertsona batek kotizaziopekoa ez den pentsioaren premia izatea.
37d) Esleipen ekonomikoa 18 urtetik gorako seme-alaba bere kargu edukitzeagatik eta % 75ekoa edo hortik gorako mendekotasun gradua izateagatik.
- 38 KOTIZAZIOPEKOA EZ DEN PENSIOA JASOTZEKO ESKUBIDEA AITORTU ZAIO. ZENBATETAKOA, ERREGELA HAUETAKOREN BATEN ARABERA EZARRIKO DA.**
- 38a) Onuradunak bere diru-sarrera propioak dituenean, eta diru-sarrera horiek kotizaziopekoa ez den pentsioa jasotzeko finkatutako urteko zenbatekoaren % 25etik gorakoak direnean, pentsioaren zenbatekoari, portzentaje horretatik gorakoa kenduko zaio.
38b) Onuradunak bere diru-sarrera propioak dituenean, eta diru-sarrera horiek kotizaziopekoa ez den pentsioa jasotzeko finkatutako urteko zenbatekoaren % 30etik gorakoak direnean, pentsioaren zenbatekoari, portzentaje horretatik gorakoa kenduko zaio.
38c) Onuradunak bere diru-sarrera propioak dituenean, eta diru-sarrera horiek kotizaziopekoa ez den pentsioa jasotzeko finkatutako urteko zenbatekoaren % 35etik gorakoak direnean, pentsioaren zenbatekoari, portzentaje horretatik gorakoa kenduko zaio.
38d) Onuradunak bere diru-sarrera propioak dituenean, eta diru-sarrera horiek kotizaziopekoa ez den pentsioa jasotzeko finkatutako urteko zenbatekoaren % 35etik gorakoak direnean, pentsioaren zenbatekoari, portzentaje horretatik gorakoa eta % 10 gehiago kenduko zaio.
- 39 ERABILTZAILEAK ETXeko LAGUNTZA ZERBITZUA ETA EGUNeko HARRERA-ETXEA, ZERBITZU BIAK ERABILTZEN DITUENEAN, FAMILIAN ZAINTEKO PRESTAZIOARI ZENBAT KENTZEN ZAIO?**
- 39a) Prestazioari edo laguntzari % 50a kentzen zaio.
39b) Prestazioari edo laguntzari % 75a kentzen zaio.
39c) Prestazioari edo laguntzari % 65a kentzen zaio.
39d) Aurreko horietatik, bat bera ere ez.
- 40 EZINTASUNAGATIK, KOTIZAZIOPEKOA EZ DEN PENSIOA ESKATU AHAL IZATEKO, BALDINTZA HAUEK BETE BEHAR DIRA:**

- 40a) Eskaera egiten den unean 18 urtetik gora eta 65 urtetik behera izatea.
- 40b) Espainiako lurraldean legez eta hamar (10) urtez bizi izatea, horietako bi (2) eskaria aurkeztu den unearen aurreko biak.
- 40c) % 75aren ezintasun bat izatea.
- 40d) Espainiako lurraldean legez eta bost (5) urtez bizi izatea.

41 PERTSONA NAGUSIEN DAKO EGOITZA GIZARTE-ZERBITZUTZAT HARTZEN DENA HAUXE DA:

- 41a) Establezimendu oro, ordainduta, 60 urtetik gorako bost pertsona nagusiri edo gehiagori ostaturik, mantenua eta arreta eskaintzen diena.
- 41b) Establezimendu oro, ordainduta, 65 urtetik gorako lau pertsona nagusiri edo gehiagori ostaturik, mantenua eta arreta eskaintzen diena.
- 41c) Establezimendu oro, ordainduta, 60 urtetik gorako lau pertsona nagusiri edo gehiagori ostaturik, mantenua eta arreta eskaintzen diena.
- 41d) Establezimendu oro, ordainduta, 60 urtetik gorako sei pertsona nagusiri edo gehiagori, mantenua eta arreta eskaintzen diena.

42 ONDOREN AIPATUKO DIREN BALDINTZA HAUETAKO BAT DA ZUZENA EGUNEKO HARRERA ETXE BATEN SARTZEKO. ZEIN?

- 42a) 60 urte beteta izatea.
- 42b) Menpekotasun egoeran dagoen pertsona legez aitortua egotea (2. edo 3. gradua BVD baremoan).
- 42c) Menpekotasun egoeran dagoen pertsona legez aitortua egotea (1., 3 edo 3.. gradua BVD baremoan).
- 42d) Nazionalitate espainola izatea eta Estatuko lurraldean bizi izatea gutxienez 5 urtez, horietatik 2 behintzat eskaera aurkeztu aurreko biak.

43 EIBARKO UDAL ERREGELAMENDUAREN ARABERA, HAUXEK DIRA ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA JARDUERAK:

- 43a) Etxeko gauzetan laguntzea, horrelakoak egitean etxebizitzan bizi diren gainontzeko pertsonen mesede zuzena egiten zaienean.
- 43b) Etxe barruan mugitzeko laguntza ematea.
- 43c) Udal zerbitzu teknikoek egindako txostenean aurreikusten ez diren zeregin guztiak.
- 43d) a) eta b) ataletakoak erantzun zuzenak dira.

44 EIBARKO UDALAREN ETXEZ ETXEKO ZERBITZUAREN UDAL ERREGELAMENDUAREN ARABERA, LAGUNTZA-ORDUAK HAUXEK DIRA:

- 44a) Ordu bi egunean.
- 44b) Hamabi ordu astean.
- 44c) Hiru ordu egunean.
- 44d) Hogeita lau ordu astean, kasu berezietan.

45 EIBARKO UDALAREN ETXEZ ETXEKO ZERBITZUAREN UDAL ERREGELAMENDUAREN ARABERA, HAUEK DIRA ZERBITZUAREN ONURADUNAK IZAN DAITEZKEENAK:

- 45a) 65 urtetik gorako pertsona nagusiak bakarrik, gauzak beren kabuz egin ezin edo autonomia pertsonalean zailtasunak dituztenak.
- 45b) Adin txikikoak, familiek ume horiei behar duten zaintza eta arreta eman ezin dietenak.
- 45c) Gauzak beren kabuz egitean edo autonomia pertsonalean zailtasunak dituzten pertsonak.
- 45d) b) eta c) ataletako erantzunak zuzenak dira.

46 GIZARTE BAZTERKETA ETA/EDO MENDEKOTASUN EGOERAN DAUDEN PERTSONEK GIZARTE-OSASUN BALIABIDEAK ESKURATZEKO ESKAERAREKIN BATERA DOKUMENTU EDO AGIRI HAUEK EKARRIKO DITUZTE:

- 46a) NAN edo pasaporte, Errentaren aitortpena eta txosten medikoa.
- 46b) NAN edo pasaporte, gizarte-txostena eta txosten medikoa.
- 46c) NAN edo pasaporte, errentaren aitortpena edo errenta aitortpena egin beharrik ez duela dioten egiaztagiria, gizarte-txostena, txosten medikoak.
- 46d) NAN edo pasaporte, errentaren aitortpena edo errenta aitortpena egin beharrik ez duela dioten egiaztagiria, gizarte-txostena, txosten medikoak eta deribazio-dokumentua.

47 GIZARTE ETA OSASUN ALORREKO BATZORDEA IZATEN DA BAZTERKETA ETA/EDO MENDEKOTASUN EGOERAN DAUDEN PERTSONEK GIZARTE-OSASUN BALIABIDEAK ESKURATZEKO EGITEN DITUZTEN ESKAERAK AZTERTZEN DITUENA. NORTZUK OSATZEN DUTE?

- 47a) Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko ordezkariak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizartekintzakoak.
- 47b) Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko eta Gizarte Politikako ordezkariak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizartekintzakoak.
- 47c) Eusko Jaurlaritzako Osasun Gizarte Politika Saileko ordezkariak, Batzordearen toki esparruko ordezkariak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizartekintzakoak.
- 47d) Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko ordezkariak, Lehen Mailako Arretarako ordezkariak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizartekintzakoak.

48 TELE-ASISTENTZIA ZERBITZUAN ALTA EMAN ONDOREN, ESKAERA EGIN DUEN PERTSONAREN ETXEAN JARRIKO DA EKIPOA. ZEIN DA JARTZEKO EPEA?

- 48a) 15 egun jakinarazpen egunetik zenbatuta.
- 48b) 30 egun jakinarazpen egunetik zenbatuta.
- 48c) 15 astegun edo lanegun jakinarazpen egunetik zenbatuta.
- 48d) 30 astegun edo lanegun jakinarazpen egunetik zenbatuta.

49 TELE-ALARMA ZERBITZUA ONDOREN AIPATZEN DIREN BALDINTZAK BETETZEN DITUZTEN PERTSONEK ESKA DEZAKETE:

- 49a) 65 urte beteta eta menpekotasun aitortua duten pertsonak bakarrik.
- 49b) Ezintasun fisiko eta sentsorial aitortua dutenek.
- 49c) Bakarrik bizi eta 75 urtetik gorakoek.
- 49d) b) eta c) atalak dira zuzenak.

50 MARKATU ERANTZUN ZUZENA. GIZARTE BALIABIDEAK ESKURATZEKO KUDEAKETARI EMATEN ZAION SAILKAPENA HAU DA:

- 50a) Funtzio asistentziala.
- 50b) Ikerketa-funtzioa.
- 50c) Plangintza-funtzioa.
- 50d) Programazio-funtzioa.

51 DIAGNOSTIKOAREN PROZESUAK HAUXE ESKATZEN DU:

- 51a) Arazoak bana-banaka aipatzea, deskribatzea, sailkapena irizpideen arabera ezartzea arazoak identifikatzea eta arazoa sortu duten arrazoiak eta arrazoi globalak aztertzea.
- 51b) Egoeraren edo arazoaren deskripzioa egitea, arazoaren alderdi esanguratsuak azaltzea, testuinguru osoarekin duen erlazioa, interpretazioa eta pronostikoa.
- 51c) Arazoaren izaera, konpontzeak duen presa edo urgentzia eta arazoaz jabetzea.
- 51d) Arazoa eta horren arrazoiak interpretatzea; pertsonak berak arazoa konpontzeko aukerarik duen ikustea.

52 "PERTSONA ARTEKO ERLAZIO EREDUA, SENTIMENDUEN ADIERAZPIDE ZUZEN SAMARRA ESKATZEN DUENA ETA, GIZARTEAREN IKUSPEGITIK, ONARGARRIA". ZER DA?

- 52a) Erresilientzia.
- 52b) Asertibitatea.
- 52c) Enpatia.
- 52d) Autonomia.

53 BANAKAKO GIZARTE LANEAN, AZTERKETA DA:

- 53a) Egitura-aldagai guztiak goitik behera ezagutzea.
- 53b) Bezeroa aurkitzen den puntu horretatik abiatzeko printzipioa errespetatzea.
- 53c) Bezeroaren inguruko datuak batzea; baita haren egoerari edo testuinguruari buruzkoak ere.
- 53d) Gizarte langilearen ohar pertsonalak.

54 PRAKTIKA KOMUNITARIOAREN EBALUAZIO PROZESUA. NOIZ EGITEN DA?

- 54a) Bakarrik ebaluazio fasean.
- 54b) Bakarrik azterketa fasean.
- 54c) Esku-hartze komunitarioko proposamena ezartzeko fasean bakarrik.
- 54d) Prozesu metodologikoaren fase guztietan eta bakoitzean.

55 **ESAN ZEINTZUK DIREN ELKARRIZKETAREN EZAUGARRIAK.**

- 55a) Orientazioa, motibazioa, informazioa, aholkularitza, terapia, tratamendua eta jarraipena.
- 55b) Hitz eginez edo berba eginez izatea, elkar ulertzea errazten duena; baliabide profesional bat izatea eta enpatia ahalbidetzea.
- 55c) Gizabanakoan eta arazoan oinarritzen da.
- 55d) Autodeterminazioa, errespetua, onarpena, juiziorik gabeko jokabidea eta sekretua.

56 **OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUETAKO ZENTRO BATERA LEHENENGO ALDIZ DOAN PERTSONARI EGITEN ZAION AURRENEKO ELKARRIZKETA ERA HONETAKOA IZATEN DA:**

- 56a) Egituratua. Estandarizatua. Deskribatzailea.
- 56b) Egituratua. Estandarizatua. Arakatzzailea.
- 56c) Egituratu gabea. Fokalizatua. Arakatzzailea.
- 56d) Egituratu gabea. Estandarizatua. Deskribatzailea.

57 **GIZARTE TXOSTENAREN FUNTZIO EDO BETEKIZUNETAKO BATZUK.**

- 57a) Gizarte-egoera jakin baten berri ematea; baita egoera horren ezaugarriak ere, egoera aldarazteko edo leuntzeko xedez.
- 57b) Irizpen profesionalerako informazioa ematea eta lehendik ezarritako gizarte-baliabideak eskuratzea.
- 57c) Erabiltzaileari buruzko datu-bilduma ez egituratua da, gizarte baliabideak sustatzekoa.
- 57d) A) eta B) egiak dira.

58 **FITXA SOZIALARI DAGOKION ENUNTZIATU HAUETAKO BAT DA ZUZENA, ESAN ZEIN.**

- 58a) Dokumentu bat da, aztertzen ari den unitatearen egoerari buruzko datuak modu diakronikoan jasotzen dituena.
- 58b) Euskarri dokumentala eta instrumentala da, informazioa antolatzeko moduan erregistratzen duena.
- 58c) Dokumentu bat da, eta bertan jasotzen dira aztertutako errealitateari buruzko datu guztiak.
- 58d) Dokumentu guztien bilduma da.

59 **MARKATU ERANTZUN ZUZENA. NORK EGITEN DU GIZARTE ZERBITZUEN EUSKAL SISTEMAREN GIZARTE FITXAK EDO FITXA SOZIALAK EZARTZEN DUEN DIAGNOSTIKO SAKONA?**

- 59a) Bigarren mailako arreta eskaintzen duten gizarte zerbitzuek bakarrik.
- 59b) Udaleko Gizarte Zerbitzuek egiten dute, udalerriko gizarte esku-hartzerako soilik egin ere.
- 59c) Udaleko Gizarte Zerbitzuek egiten dute udalerriko gizarte esku-hartzerako edo bigarren mailako arretako gizarte-zerbitzuetara bideratzeko edo deribatzekeo.
- 59d) a) eta b) dira erantzun zuzenak.

60 **GIZARTE ZERBITZUEN EUSKAL SISTEMAREN FITXA SOZIALAK JASO EGITEN DU OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUEK ERABILTZAILERI ARRETA EMATEKO ARRAZOA. ZEIN DA HELBURUA?**

- 60a) Beste gauza batzuen artean, iraupenerako baliabideen inguruko gaiak jasotzea.
- 60b) Gizarte-zerbitzuen sistemak dituen zerbitzuen eta prestazioen inguruko informazioa batzea bakarrik.
- 60c) Gizarte-bazterkeriarekin lotutako gaiak bakarrik jasotzea.
- 60d) b) eta c) erantzunak zuzenak dira.

61 **MARKATU ERANTZUN ZUZENA.**

- 61a) Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Fitxa Sozialeko datuak, tratatuak edo tratatu gabeak, estatistika-informazio gisa hartu ahal izango dira Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuen euskal sisteman.
- 61b) Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Fitxa Sozialeko datuak, tratatuak edo tratatu gabeak, informazio konfidentzial gisa hartu ahal izango dira Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuen euskal sisteman.
- 61c) Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Fitxa Sozialeko datuak, tratatu ostean, estatistika-informazio gisa hartu ahal izango dira Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuen euskal sisteman.
- 61d) Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Fitxa Sozialeko datuak, tratatu ostean, informazio konfidentzial gisa hartu ahal izango dira Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuen euskal sisteman.

62 **GIZARTE BAZTERKERIA BALIOESTEKO TRESNAK DEFINITU EGITEN DU "GIZARTE BAZTERKERIA". ZEIN DA DEFINIZIOA?**

- 62a) Pertsona bat gizarte-bazterkeriako egoeran egon liteke zenbait ezaugarri edo faktore pertsonal edo sozial daudenean edo ez daudenean, betiere haien arabera aurkako ondorioak agertzeko probabilitateak hazten badira, azkenean gizarte-bazterkeriako egoera edo prozesuak eraginez.
- 62b) Pertsonak gizarte-bazterkeriako egoeran egongo dira, iraun egiten duen edo egiten duten gabezia batek edo bik haien bizi-baldintzei eta bizikidetzeta-baldintzei eragiten dietenean.
- 62c) Pertsonak gizarte-bazterkeriako egoeran egongo dira, iraun egiten duten gabezia ugari haien bizi-baldintzei eta bizikidetzeta-baldintzei eragiten dietenean.

- 62d) Pertsonak gizarte-bazterkeriako egoeran egongo dira, iraun egiten duen edo egiten duten gabezia batek edo bik haien bizi-baldintzei eta bizikidetzaren baldintzei eragiten dietenean. Gabezia horiek metatzen direnean, gizarte-bazterkeriako egoera bat eragiten dute, zuzenean baliabide pertsonalekin, harremanezkoekin edo baliabide materialekin lotutakoa.
- 63 **GIZARTE BAZTERKERIA BALIOESTEKO TRESNAK, 385/2013 DEKRETUKOAK, ADIERAZLEEN ZERRENDA BAT DEFINITZEN DU, DIMENTSIOEN ARABERA ORDENATUTAKOA ETA, ALDI BEREAN, FUNTSEZKO BOST ESPARRUTAN ANTOLATUTAKOA.**
- 63a) Ekonomia arlokoa, egoitza arlokoa, pertsonal arlokoa, osasun arlokoa eta gizarte arlokoa.
- 63b) Ekonomia arlokoa, bizikidetzaren arlokoa, pertsonal arlokoa, osasun arlokoa eta gizarte arlokoa.
- 63c) Ekonomia, lan eta egoitza arlokoa, bizikidetzaren arlokoa, pertsonal arlokoa, osasun arlokoa eta gizarte arlokoa.
- 63d) Aurreko horietatik, bat bera ere ez.
- 64 **GIZARTE BAZTERKERIA BALIOESTEKO TRESNAK, 385/2013 DEKRETUKOAK, EGOERA EKONOMIKOAREN ADIERAZLEA HONELA EMATEN DU GASTUEN DIMENTSIO BARRUAN:**
- 64a) Etxebizitza- edo ostatu-gastuak; gastuak beste ondasun batzuetan eta gastuak bakarrik oinarrizko zerbitzuetan.
- 64b) Gastuak oinarrizkoak ez diren ondasun eta zerbitzuetan.
- 64c) a) eta b) dira erantzun zuzenak.
- 64d) Aurreko erantzun horietatik, bat bera ere ez da zuzena.
- 65 **UME EDO HAURREN BABESGABETASUNAREN ALORREAN, UDAL GIZARTE ZERBITZUEN ESKUMENEKOA DA,**
- 65a) Berehalako babesaren ematea eska dezaketen babesgabetasun egoeren jakinarazpenak jasotzea.
- 65b) Babesgabetasun larriko kasuetan, urgentziazko babes neurriak hartzeko premiarik dagoen balioestea.
- 65c) Programak eta jarduerak garatzea Babes Berezi behar ez duten umeen egoerak detektatzeko eta berehala jakinarazteko.
- 65d) Programak eta jarduerak garatzea Babes Berezia behar duten umeen egoerak detektatzeko eta berehala jakinarazteko.
- 66 **ADINGABEEN ALORREAN, UDAL GIZARTE ZERBITZUEK ETA FORU ALDUNDIEK BATERA JARDUTEN DUTE BETEKIZUN BATZUETAN. ZEINTZUK DIRA ZERBITZU HORIEK?**
- 66a) Babesgabetasun kasuen balioespina egitea.
- 66b) Ikerketa egitea.
- 66c) a) eta b) atalak erantzun zuzenak dira.

- 66d) Erantzun bat bera ere ez da zuzena.
- 67 **SUFRITU DUEN ARRISKU-EGOERAK EDO BABESGABETASUNAK UME BATI EGIN DIO KALTEA, NORK BALORATUKO DU?**
- 67a) Gizarte langileak eta horretan espezializatutako profesional batek.
67b) Gizarte langileak, pediatrarekin eta maisu/maistrarekin batera.
67c) Kasu bakoitzean egokiena dena.
67d) Udal gizarte langileak Aldundiko teknikariekin batera jarduna.
- 68 **ALDUNDIEK DITUZTEN ARRETA ESPEZIALIZATUTAKO ZERBITZUEN ALORREAN, HAUEK DITUGU:**
- 68^a) Udal esku-hartze programak
68b) Etxebizitzak
68c) Eguneko zentroak.
68d) b) eta c) atalak dira zuzenak.
- 69 **ADINGABEEN ABANDONUAREN LARRITASUNA NOLAKOA DEN ZEHAZTEKO, HAUXE DUGU:**
- 69a) Gurasoek edo tutoreek edo zaintzaileek, ume nerabearen zaintza beste pertsona batzuen eskuetan zenbat aldiz eta zenbat denboraz ez duten utzi
69b) Zein inguruabarretan gertatu den hori ikusita (hau da: zeinen eskuetan utzi zen umea eta umearen edo nerabearen beraren prestaketa).
69c) Egoera ekonomikoa da kontuan hartu behar den gauza bakarra, aitarena, amarena edo umearen edo nerabearen zaintza berriro bere gain hartu dutenena.
69d) a) eta b) atalak erantzun zuzenak dira.
- 70 **BABESGABETASUN TIPOLOGIA BAKOITZARENTZAT, "BALORA" TRESNAK DESKRIBATU EGITEN DU;**
- 70a) Larritasun mailak, handia edo oso handia.
70b) Beste egoera batzuen artean, zaintzan jardutean egon daitezkeen defizit arineko egoerak, "arrisku arine"koak direnak.
70c) Zaintzan jardutean egon daitezkeen defizit arineko egoerak eta "arrisku handi"koak direnak.
70d) Erantzun horietako bat bera ere ez da zuzena.
- 71 **EPAILEARI DAGOKIO TUTORETZA EZARTZEA ETA MINISTERIO FISKALARI KURADORETZA EZARTZEA.**
- 71a) Egia da. Kuradoretzak ez dakarrenez horrenbesteko gaitasun murrizketarik Epailera ez den beste autoritate batek ezar dezake.
71b) Gezurra da: Epaileri dagokio egoera biak ezartzea.
71c) Egoera biak ezar ditzake Ministerio Fiskalak baldin eta bera izan bada dena delako pertsona horren jarduteko gaitasuna mugatzeko prozedurari ekin diona.

71d) Aurreko erantzun horietatik, bat bera ere ez da zuzena.

72 **AITAK DEMENTZIA ZUELA ETA, MARINAK, ISIDROREN ALABA, AITAREN TUTORETZA IZAN ZUEN HOGEI URTEZ. ISIDRO 1998KO OTSAILAREN 15EAN HIL ZEN. HALA ERE, URTE HORRETAKO URTARRILEAN, MARINARI KENDU EGIN ZIOTEN AITAREN TUTORETZA BERE BETEBEHARRA TXARTO BURUTZEAGATIK.**

MARINAK ALABA BAT DU, ALARGUNA, SARA; BAITA NAROA IZENENKO BILOBA BAT ERE. 2014. URTEAN SARARI EZGAITASUN DEKLARAZIOA EMAN DIOTE PERTSONALITATE TRASTORNOAGATIK.

MARINA ZAN DAITEKE SARA BERE ALABAREN TUTOREA?

72a) Ez, Naroa izan behar da, Kode Zibilaren 234. artikulua arabera, ondorengoei lehentasuna ematen zaielako beste edozeinen aurretik.

72b) Bai, ezkontiderik izan ezean, Kode Zibilaren 234. artikulua arabera, gurasoei ematen zaielako lehentasuna.

72c) Ez, lehen Marinari kendu egin ziotelako Isidro bere aitaren tutoretza.

72d) Aurreko hiru horietako bat bera ere ez.

73 **GIZARTE LANEN LANBIDEAN DIHARDUENAK BERE GIZARTE ESKUHARTZEA AHAL ETA MODURIK ZEHATZENEAN EGITEKO BEHAR-BEHARREZKOA DUEN INFORMAZIOA ESKATZEN DUENEAN; INFORMAZIO HORI ESKURATZEKO ETA EGUNEAN IZATEKO ERRESPECTU OSOZ JOKATZEN DUENEAN ETA INFORMAZIOA MODU ARDURATSUAN DARABILENEAN, HAUXE DA BETETZEN ARI DEN BETEBEHARRA:**

73a) Mugatze betebeharra.

73b) Helburu betebeharra.

73c) Kalitate betebeharra

73d) Adostasun betebeharra.

74 **GIZARTE LANAREN KODE DEONTOLOGIKOAK LANBIDE HORRETAN DIHARDUTENEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK ZEHATZEN DITU BAINA...**

74a) Soil-soilik erakundeei dagokiela.

74b) Soil-soilik beste profesional batzuei dagokiela.

74c) Soil-soilik erabiltzaileari dagokiela.

74d) Erakundeei, beste profesional batzuei eta erabiltzaileei dagokiela.

75 **GIZARTE LANAREN KODE DEONTOLOGIKOAREN ARABERA, ONDOREN AIPATUKO DIREN FUNTSEZKO PRINTZIPIO HAUEK DITU OINARRI LAN JARDUNBIDEAK:**

75a) Duintasuna, indibidualizazioa eta berdintasuna.

75b) Askatasuna, pertsona onartzea, gizarte justizia.

75c) Errespetu benetakoa, balio-judiziorik ez izatea, pertsonaren erabateko sustapena.

75d) Duintasuna, askatasuna eta berdintasuna.

76 **KONSTITUZIOAREN ARABERA, MILITARREN ZIGOR-LEGEETAN GUDAGARAIKAKO EZARRITA DAGOENA SALBU:**

- 76a) Heriotza-zigorra indargabeturik dago.
- 76b) Heriotza-zigorra indargabeturik dago, larritasun oso handiko delitueterako izan ezik.
- 76c) Heriotza-zigorra indargabeturik dago, Auzitegi Gorenak epai bidez kontrakorik ebazten ez duen artean.
- 76d) Heriotza-zigorra ez dago indargabeturik.

77 **AUTONOMIA-ESTATUTUAREN ARABERA:**

- 77a) Nafarroa Euskal Autonomia Erkidegoko partaidea da.
- 77b) Nafarroak Euskal Autonomia Erkidegoko partaide izateko eskubidea du.
- 77c) Nafarroak ezin du Euskal Autonomia Erkidegoan sartu.
- 77d) Autonomia-estatutuak ez du Nafarroa aipatzen.

78 **ADMINISTRAZIOKO AGINTE ETA LANGILEENTZAT HONAKO HAUEKO ZEIN EZ DA ABSTENTZIORAKO ARRAZOA?**

- 78a) Dena delako gai horretan zuzeneko interesa duen pertsona fisiko edo juridikoren batekin zerbitzu-harremana izatea.
- 78b) Interesatuetakoko edozeinekin odolez edo ezkontzaz laugarren maila arteko harremana izatea.
- 78c) Dena delako prozeduran peritu modura parte hartu izana.
- 78d) Gai horretan zuzeneko interesa duen pertsona fisiko edo juridikoari azken bi urteetan edozein motatako zerbitzu profesionalak eskaini izana, edozein baldintzatan edo tokitan.

79 **ADMINISTRAZIO PROZEDURA BATEN EPEAREN AZKEN EGUNA EGUN BALIOGABEA BADA...**

- 79a) Hurrengo egun baliiodunera luzatuko da epea.
- 79b) Aurreko egun baliiodunean bukatuko da epea.
- 79c) Epea ezartzen duen arauak xedatu beharko du noiz bukatzen den.
- 79d) Ezin dira ezarri egun baliogabeetan bukatzen diren epeak.

80 **ZEIN DA GORA JOTZEKO ERREKURTSOA EBAZTEKO ORGANO ESKUDUNA?**

- 80a) Egintza eman zuen organoa.
- 80b) Egintza eman zuen organoko lehendakaria.
- 80c) Eman zuenaren goragoko organoa.
- 80d) Administrazioarekiko auzien aretoa.

81 **ONDORENGO ZEIN GAITAN ERABILIKO DITU AGINPIDEAK UDALAK?**

- 81a) Leku publikoetako segurtasunean.
- 81b) Etxebizitzak sustatu eta kudeatzean.
- 81c) Kultura eta kiroleko jarduera eta instalazioetan.
- 81d) Aipatutako guztietan.

82 NOIZ HARTZEN DA HERRIKIDE-IZAERA?

- 82a) Erroldan izena ematen den une berean.
- 82b) Erroldan izena eman eta handik 15 egunera, kontrako ebazpenik eman ez bada.
- 82c) Bizilekua udalerrian jartzen den unean.
- 82d) Edonola ere, beharrezkoa da udal-zergetan zorretan ez egotea.

83 UDAL GOBERNUA ETA ADMINISTRAZIOA, NORK ZUZENTZEN DU?

- 83a) Udalbatzak.
- 83b) Alkateak.
- 83c) Lehenengo alkateordeak.
- 83d) Gai horretan eskumena duen batzorde iritzi-emaileak.

84 ONDORENGO HAUETATIK, ZEIN DA EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNAREN ARLOAN EUSKAL HERRI-AGINTEEN JARDUKETA GIDATU ETA BIDERATUKO DUEN PRINTZPIO OROKORRA?

- 84a) Aukera-berdintasuna.
- 84b) Dibertsitatea eta ezberdintasuna errespetatzea.
- 84c) Genero-ikuspegia integratzea.
- 84d) Aurreko erantzun guztiak zuzenak dira

85 ZEIN EPETAN ONARTU BEHAR DU JAURLARITZAK EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUN PLANA?

- 85a) Legegintzaldia hasi eta 3 hilabete.
- 85b) Legegintzaldia hasi eta 4 hilabete.
- 85c) Legegintzaldia hasi eta 6 hilabete.
- 85d) Legegintzaldia hasi eta urtebete.

86 TRATATUKO IZAERA PERTSONALEKO DATUETAN SARTZEKO ESKUBIDEA.

INTERESATUAK ESKUBIDEA IZANGO DU BERE DATUEI BURUZKO INFORMAZIOA ESKATU ETA INFORMAZIO HORI DOAN ESKURATZEKO GUTXIENEO DENBORA TARTE HONETAN:

- 86a) Sei hilean
- 86b) Hiru hilean
- 86c) Hamabi hilean

86d) Bederatzi hilean.

87 ABENDUAREN 15/1999KO LEGE ORGANIKOAREN 7. ARTIKULUAREN ARABERA, NORBERAREN DATUAK BABESTEKOA, ONDOREN AIPATUKO DIREN DATU HAUEK EZ DUTE BABES BEREZIRIK:

87a) Ideologiak eta afiliazio sindikalak.

87b) Arraza-jatorriak eta osasunak.

87c) Erljio sinesmenek.

87d) Pertsonen helbideak.

88 DATU PERTSONALAK ESKATZEN ZAIZKIENEI,

88a) azaldu behar zaie, gerora, datuetara heltzeko, datuak zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideez baliatzeko aukera dutela.

88b) azaldu behar zaie, edozein modutan ere, egiten zaizkien galderei ematen dizkieten erantzunak derrigorrezko izaera edo hautazko izaera duela.

88c) azaldu behar zaie, edozein modutan ere, berariaz, zehaztasun osoz eta ezbairik gabe, zeintzuk diren datuak eskuratu izanaren edo ukatu izanaren ondorioak.

88d) Aurreko erantzun guzti horiek dira okerrak.

89 IZAERA PERTSONALEKO DATUEN TRATAMENDUAK

89a) Beti eskatuko du horren eraginpean dagoenaren adostasuna edo baimena.

89b) Izaera pertsonaleko datuak tratatzerakoan horren eraginpean dagoenaren baimenik edo adostasunik behar ez denean, ezingo du datuak tratatzeko ezetzik eman.

89c) Datu-tratamendurako baietza edo adostasuna atzera bota daiteke alde zuzenetik eskaera eginda. Atzera botatze horri atzeraeraginezko ondorena eman dakioke.

89d) Aurreko erantzun guzti horiek dira okerrak.

90 ADMINISTRAZIO PROZEDURAN INTERESDUN DIRA:

90a) Prozedurari hasiera eman diotenak, eskubide edo bidezko interesen titular modura.

90b) Prozeduran har daitezkeen erabakiek uki ditzaketan eskubideak dituztenak, nahiz eta beraiek hasiera eman ez prozedurari.

90c) Ebazpenak uki ditzakeen norbanakoen nahiz taldeen bidezko interesak dituztenak, behin betiko ebazpena eman baino lehen aurkezten badira prozeduran.

90d) Erantzun guztiak dira zuzenak.

GALDERAK, ERRESERBAKOAK.

91 MARKATU ERANTZUN ZUZENA.

- 91a) Eusko Jaurlaritzak udal euskal administrazio publikoen eskuetan, osasun arlokoetan eta hezkuntzakoetan jarriko du fitxa sozialaren aplikazioa.
- 91b) Eusko Jaurlaritzak udalerrien eskuetan bakarrik jarriko du fitxa sozialaren aplikazioa.
- 91c) Eusko Jaurlaritzak foru-esparruko organoen eskuetan bakarrik jarriko du fitxa sozialaren aplikazioa.
- 91d) Eusko Jaurlaritzak udal eta foru euskal administrazio publikoen eskuetan utziko du fitxa sozialaren aplikazioa. .

92 **TXOSTEN SOZIALEKO EREDU OROK BETE BEHAR DITU BALDINTZA HAUEK:**

- 92a) Laburra izatea, argia, objektiboa, logikoa, ondo egituratua, sakona alderdi praktikoetan; arina eta zuzena zerrendatzean; eraginkorra martxan jartzean eta konfidentziala.
- 92b) Laburra izatea, argia, objektiboa, logikoa, sinplea eta ondo egituratua, sakona alderdi praktikoetan; arina eta zuzena erredakzioan; eraginkorra martxan jartzean eta konfidentziala.
- 92c) Ez dago eredu bakar bat txostenak egiteko.
- 92d) Bezeroak eska dezakeen laguntza-motaren arabera egingo da eta gizarte-langileak lan egiten duen erakundeak duen xedearen arabera.

93 **LAGUNTZA PERTSONALERAKO PRESTAZIO EKONOMIKOAREN HELBURUA HAUXE DA:**

- 93a) Bigarren ahaidetasun mailako senideak kontratatzea.
- 93b) Menpekotasun egoeran dauden pertsonen laguntzako laguntza-zentro bat kontratatzea. ?;
- 93c) Hirugarren ahaidetasun mailako senideak kontratatzea.
- 93d) Aurreko erantzun horietatik, bat bera ere ez da zuzena.

94 **GIZARTE ZERBITZUEN EUSKAL SISTEMAREN GUTXIENEN PRESTAZIOAK DITUGU HAUEK:**

- 94a) Prestazio teknikoak, ekonomikoak eta parte-hartzeak.
- 94b) Prestazio ekonomikoak, teknologikoak eta parte-hartzeak.
- 94c) Prestazio teknikoak, ekonomikoak eta teknologikoak.
- 94d) Prestazio ekonomikoak, teknologikoak eta laguntzakoak.

95 **GIZARTE LARRIALDIETARAKO LAGUNTZAK. GASTU HAUETATIK, ZEIN DA EZOHIKO EDO OHIKO GASTUTZAT HARTZEN EZ DENA?**

- 95a) Gas naturala.
- 95b) Landa eta hiri izaerako ondasun higiezinaren gaineko zerga.
- 95c) 2. etxebizitza mantentzea.
- 95d) Garbigailua edo ikuzgailua.

- 96 **UDAL INTERESEKO ELKARTEEN ERREGISTROAN INSKRIBATU DAITEZKEEN ELKARTEAK DITUGU HAUEK.**
- 96a) Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Herri Administrazio Sallaren Elkarten Erregistroan inskribatutako elkarteak.
- 96b) Udalerrian laguntza jarduerak egiten dituztenak.
- 96c) Irabazi asmokoak ez direnak.
- 96d) Aurreko guztia betetzen dutenak.
- 97 **ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA. ESKAERA AZTERTU ETA BALIOETSI ONDOREN, ESKUMENA DUEN ORGANOARI BIDALIKO ZAIO ETA HARK EMANGO DU EBAZPENA. EBAZPENA EMATEKO DAGOEN GEHIENKO EPEA HAUXE DA:**
- 97a) Hile bat eskaera sartu zenetik.
- 97b) Hiru hile eskaera sartu zenetik.
- 97c) Bi hile eskaera sartu zenetik.
- 97d) Sei hile eskaera sartu zenetik.
- 98 **GIZARTE LANGILEAK GIZARTE LANAREN OINARRIZKO PRINTZIO BATZUK BETE BEHAR DITU ELKARRIZKETAK EGITERAKOAN. ZEINTZUK DIRA PRINTZIO HORIEK?**
- 98a) Ikusten jakitea, entzuten jakitea, galdetzen jakitea, bezeroaren erritmoa jarraitzea, haren lekuan ipintzea eta egituratzen jakitea.
- 98b) Autodeterminazioa, errespetua, onarpena, gordetasuna, juiziotik salbuetsitako jokabidea.
- 98c) Arazoen ikuspegia edukitzea, pertsonen ingurukoa, pertsonen ingurunearena, galdera irekiak egitea eta larregi ez moztea.
- 98d) Isiltasuna, elkarrizketaren giroa eta elkarrizketa amaitzea.
- 99 **APIRILAREN 7KO 13/1982 LEGEAK EZINDUAK EDO MINUSBALIODUNAK GIZARTERATZEKOAK, HAINBAT PRESTAZIO EDO LAGUNTZA JASOTZEN DIGU. ZEINTZUK DIRA GAUR EGUN INDARREAN DAUDENAK ETA ESKA DAITEZKEENAK?**
- A) OSASUN LAGUNTZA ETA PRESTAZIO FARMAZEUTIKOA.**
- B) GUTXIENKO DIRU-SARRERAK BERMATZEKO SOROSPENA.**
- C) HIRUGARREN PERTSONA BATEK LAGUNTZEAGATIKO SOROSPENA.**
- D) MUGIKORTASUN ETA KONPENTSAZIO SOROSPENA GARRAIO GASTUETARAKO.**
- 99a) Laurak eska daitezke.
- 99b) Bat ere ez
- 99c) a) eta d)
- 99d) c)